

0- SARRERA

Laster izango dira EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak, langile-klasearentzako eta herritar gehienentzako une latzean izan ere. Esan dezakegu emergentzia sozialeko egoeran gaudela. Pobrezia orokortzeko politikak indar handiz ari dira ezartzen, eskubide laboral eta sozialak behin eta berriz murrizten dizkigutelarik. Iazko udan onartu zen Konstituzioaren erreforma edota berau garatu zuen Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea bide beretik doaz.

Erakunde guztiak ari dira aurrekontuak murrizteko politikak aplikatzen, baita Eusko Jaurlaritza ere; berau, murrizketen aurka dagoelako itxurak egin arren, gastua funtsezko gaietan murrizten ari da -osasungintza, hezkuntza edo etxebizitza-, eta okertu egiten ditu gizarte-prestazioetan nahiz administrazioan lanean ari den beharginen lan-baldintzak.

ELAren aburuz ezinbestekoa da ekinbide politikoan gai sozialari lehentasuna ematea, eta horrek erabateko aldaketa eskatzen du egiten diren politiketan. Oraingo bideari jarraituz gero, hondamendira goaz. Badakigu aldaketa hori izatekotan aurre egin behar zaiola botere ekonomiko, finantziario eta mediatikoari, eta honek, hain zuzen, aldaketa eskatzen du hauteskunde ondoren aginduko dutenen aldetik.

Demokrazian, hauteskunde-kanpainak indar politiko bakoitzaren programa zehazteko izan beharko litzateke, eztabaidarako, elkarrekiko interpelaziorako eta hautesleek identifika ditzaketen gai jakinei buruzko konpromisoak hartzeko. Zoritxarrez, hau ez da horrela izaten.

Langile-klaseak lan-eskubide eta -baldintzei dagokienez babes handiagoa izan du klase politikoa, nola edo hala, botere ekonomikoaren diru-goseari eta esplotazioari mugak jartzera ausartu denean. Defentsa edo oreka emateko funtzio honek interes orokorra ipartzat hartzen du, eta funtsezko oinarri etiko baten baitan dago: ekonomia pertsonen zerbitzura egon behar dela, eta ez alderantziz. Zoritxarrez, gaurko egoera ez da hori.

Eutsi egiten diogu oinarri bati: hauteskunde-kanpainek asmo demokratiko eta soziala izan behar dute. Hori lortzeko indar egiten jarraitzeko prest gaude, finantza eta enpresen lobbyek asmo horren kontrara jokatzeko duten legitimitate bera baitugu, edota are legitimitate handiagoa.

ELAk dei egiten die alderdi politikoei agintera iristekotan izango duten ekinbiderako konpromiso batzuk har ditzaten. Hots, hitz eman dezatela neurri konkrituak ezarriko dituztela, jendearen bizi-kalitatea, enplegua eta gizarte-justizia hobetze aldera. Ez ditugu arlo guztiak aipatuko, baina lan-ildo argi bat marraztuko dugu.

Beste batzutan eratu berri ziren gobernu autonomiko eta foralei egin izan dizkiegu eskarriak, "gobernu-ekinbiderako proposamenak" plazaratuz. Etorkizunean ere egingo dugu. Baina beste urrats bat eman eta hauteskundeetako eztabaida baldintzatu nahiko genuke. Espero dugu asmo honek etekina ematea.

I- KONPROMISO KONKRETUAK

ELAk honako konpromisoak hartzea proposatzen du, Eusko Jaurlaritzara iristekotan:

1. BERTON ERABAKITAKO AURREKONTU-POLITIKA

Berton erabakitako aurrekontu-politika, Madrilén hartutako erabakien menpe ez dagoena, egiteko konpromisoa. Horretarako egin beharrekoa:

- Ez aplikatzea espainiar gobernuak oinarri-lege gisa erabakitzen dituen murrizketak, zeinek ez baitituzte eskumenak errespetatzen.
- Espainiar estatuan erabakitzen diren defizit publikorako mugak ez onartzea (BPGren %1,5 2012an eta %0,7 2013an, autonomia-erkidegoentzat), beharrian sozialei eman behar baitzaie lehentasuna. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak estatuko aurrekontu-esparrua onetsi du, eta onartu ezineko eskumenekiko utzikeria izan du, ondorio sozial larriekin.
- AHT geldiaraztea, azpiegitura honetarako funts gehiago ez emanez. Alde batera utzi beharra dago garapena AHT edo Pasaiaiko portuaren moduko obra handiekin lotzen duen politika, proiektuok ez baitute justifikazio ekonomiko ez sozialik, eta ingurumenari atzera ezineko kaltea eragiten baitiote. Lehentasuna beste bat da, pertsonen eta ingurumenaren zaintza.

2. ENPLEGU-POLITIKA PROPIOA

- Enplegu prekarioaren jazarpena eta laneko segurtasun eta osasuna bermatzea, kontratuetako iruzurrari aurre eginez eta giza-baliabideetan zein ikuskaritza eta zigorretan askoz ahailegin handiagoa eginez.
- Enpresei kontratuak egiteko ematen zaizkien laguntzak kentzea, ez baitute enplegurik sortzen.
- Enplegu-politika propioa garatzea; ez da onartu behar prestakuntza, lan-bitartekaritza eta horrelako erabakiak Espainiako gobernuaren politiken menpeko izatea.
- Lanerako eta langileen etengabeko prestakuntza eredua hirukoa izatea, erabakiak hartzeko talde bakoitzaren gehiengoa beharrezkoa izango delarik. Prestakuntzarako kuotak kudeatzea. Prestakuntza bakarrik lanbide-heziketako zentro homologatuek eman behar dute, funtsak desbideratzeko aukera galarazteko.
- Enplegu-transferentzien salaketa, politikak erabakitzeko ahalmenari zein eragingo duten galera ekonomikoari dagokionez.
- Lanpostuak sortzeko inbertsio publiko zuzena taxuz gehitzea, esparru horietako erabakiguneak Euskal Herrian geratuko direla eta proiektu horien interes publikoa bermatuz.

3. GIZARTE-PRESTAZIOAK

- Gizarte-prestazioetan ezarri diren murrizketak bertan behera uztea. Konpromiso hau prestazioen zenbatekoari dagokio, milaka pertsona Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte-Larrialdietarako Laguntza (GLL) eta beste batzuk jasotzeko aukerarik gabe utzi baitituzte. GLLak eskubide gisa finkatu behar dira. Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kopurua pobrezia-mailaren atalaseraino gehitu behar da.
- Langabe guztiei estaldura duina emango dien langabezia-prestazio bat ezartzea.

4. OSASUNEO ETA HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Europako Batasuneko batez besteko osasun eta hezkuntzako gastu publikoarekiko dagoen atzerapena gainditzea:

- Europako Batasunean osasuneko gastu publikoa batez beste Eusko Jaurlaritzarena baino %38,9 handiagoa da. Horrek esan nahi du bertoko gastua urteko 1.458,4 milioi euro txikiagoa dela.
- Europako Batasunean hezkuntzarako gastu publikoa Jaurlaritzarena baino %28 handiagoa da. Honek esan nahi du EAEko administrazioak urteko 835 milioi gutxiago jartzen dituela.

5. ESKUBIDE SOZIALAK LEGEZ FINKATZEA

Legez honako eskubideok aitortzea:

- Menpekotasun egoera guztien estaldura; hauen arreta kalitatezko zerbitzu publiko baten esku izango da.
- 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza sare publikoan eskatzen diren plaza guztiak osatzea.
- Biztanle orok alokairu soziala izateko aukera eskubide subjektibo gisa finkatzea, eta etxebizitza hutsen gainean zerga-karga asko areagotzea.
- Laneko, familiako eta pertson bizitza kontziliatzeko ematen diren prestazio ekonomikoak duinagoak egiteko erabakia.

6. ZERGA-POLITIKAREN ALDAKETA SUSTATZEA

Finantzen Euskal Kontseiluko eta Zerga-Koordinaziorako Organoko parte hartzea honetarako baliatu behar da:

- Hiru foru-aldundiak egiten ari diren zerga-politika salatzeke.
- Iruzur fiskalaren jazarpena exijitzeko, urtero gutxienez soldatapeko ez diren errenten %20 ikuskatuko delarik.
- Azken urteotan errenta altuei eta kapitalari egindako zerga jaitsierak bertan behera uztea exijitzeko (PFEZ, Sozietateen Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga); ez da axaleko aldaketarik onartu behar.

Halaber, Eusko Legebiltzarrean aldagetak proposatzeko konpromisoa hartu beharko litzateke, zergei buruzko erabakiak Legebiltzarrean bertan har daitezen.

7. DEMOKRAZIA SAKONAGOA, GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA

- Politika publikoak erabakitzerakoan sindikatuei parte hartzeko benetako aukera ematea. Esparru formalean sindikatu bakoitzaren ordezkaritza maila berariaz hartu behar da aintzat. Baldintza hauek betetzen ez dituzten esparru guztiak, esaterako Elkarriketa Sozialeko Mahaiak, desegin beharrekoak dira, erakundeotan erabakiak talde guztien adostasunarekin har daitezen eta sindikatuen ordezkaritza beti EAEko langileek emandakoa izan dadin. Halaber, politikak eztabaidatzeko harreman bilateralak ere beharrezkoa da.
- Erreferendumen bidea erabiltzea erabaki politikoak hartzerakoan partaidetza ahalbidetzearen, batik bat gairik nagusienei eta eztabaidarik biziena piztu dutenei buruz.
- Arduradun politikoen harremanak (agenda) publiko egitea.
- Agiri ofizialak eskuratzeko aukera bermatzea. Informazio honek publikoaren eta gizarte-erakundeen esku egon behar du.
- Bateriaezintasunen erregimena hedatzea.

8. ZORRAREN AUDITORIA

- Zor publikoaren auditoria bat sustatu eta erraztea, eta zilegi ez dela erabakitako zatia ez ordaintzeko hitz ematea. Zorraren auditorian hainbat kontu aztertzen da: zorraren jatorria, zergatik sortu den, zertarako baliatu den, noren onerako, gardentasuna, balizko irregularitateak, etab. Prozesu soziala izan behar du, eta gobernuaren laguntza ezinbestekoa da, beharrezko informazioa emanez.

9. ARLO PUBLIKOKO LAN-BALDINTZAK

- Ezarritako murrizketak bertan behera uztea, Espainiako gobernuari zein Patxi Lopezenari dagokienez.
- Negoziazio kolektiboan iritsitako akordioak errespetatzea eta alde bakarreko erabakirik ez hartzea. Akordioak gutxiengoa duen ordezkaritza sindikalarekin sinatzeko aukera baztertzea. Azken urteotan adostutako eskubide sindikalak mantentzea.
- Enplegu Publikoaren Lege berri bat sustatzea, hainbat aldaketa gauzatzearren: herri-administrazioek zuzenean eskaini behar dituzten oinarrizko zerbitzuak finkatu; zerbitzu publikoen pribatizazioa erabat geldiarazi; gizarteari eta sindikatuei parte-hartzeko aukera eman zerbitzu publikoek zein beharrian osatu behar duten erabakitzerakoan; gizarteak zerbitzu publikoak eskaintzeko erari buruzko kontrola; egiturazko lanpostuetan diharduten behargin guztientzako benetako egonkortasuna; zerbitzu publikoen euskalduntzea, eta segurtasun juridikoa izango duen negoziazio kolektiborako eskubidea.
- Plantilla gehitzea egiturazko postu guztiak osatu arte eta, lehenengo, agindutako lanpostu guztiekin eskaintza publikoa egitea (5.000 postu, uneotan).
- Azpikontrataturako langileen baldintzak arlo publikokoekin parekatzea, eta zerbitzu horiek publikatzea, egungo enplegua mugagabe mantenduko dela bermatuz.
- Lanak esleitzeko pleguetan (adibidez, herrilanean) lurraldeetako sektore-hitzarmena aplikatzeko beharra finkatu behar da, baita langileen subrogazioa enpresa aldatuz gero.
- Erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena Administrazioan ez aplikatzea.

10. FINANTZA-SISTEMA

- Kutxen Legean atzera egitea.
- Aurrezki-kutxak finantza-erakunde bihurtzeko erabakia bertan behera uztea.
- Finantza-erakundeen egitekoari buruzko eztabaidari ekitea gizartean, erabakitzeko zer eratako jardun izan behar duten, eta lana zein kolektibo edo sektorerentzat egin behar duten.